



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko urriaren 29a

123. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-24/MOC-00135. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak exijitzen baitu Pedro Sánchez buru duen gobernu osoak dimisioa aurkez dezan eta hauteskunde orokorren deialdia egin dadin. Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (2. or.).
- 11-24/MOC-00136. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita onar dezan Itoizko urtegia eta Nafarroako Ubidea eraikitzea egokia eta beharrezkoa izan zela eta ohartarazten baitio lehentasuneko delá Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen lizitaziorako izapideak arintzea, toki entitateen, ureztatzailer elkarten eta ukitutako eragileen eskutik. Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- 11-24/MOC-00138. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita berehala heda dezan Europar Batasuneko Zerbitzu Digitalei buruzko Erregelamendua. Kevin Lucero Domingues jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-24/MOC-00140. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kulturaren arloko lanbideei buruzko lege proiektu bat idatz dezan. Oihan Mendo Goñi jaunak aurkeztu du (7. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagitzak aurkezteko epea luzatzea (8. or.).
- 11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea. Hautagitzak aurkezteko epea luzatzea (8. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-24/MOC-00135. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak exijitzen baitu Pedro Sánchez buru duen gobernu osoak dimisioa aurkez dezan eta hauteskunde orokorren deialdia egin dadin

VOX NAFARROA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak exijitzen baitu Pedro Sánchez buru duen gobernu osoak dimisioa aurkez dezan eta hauteskunde orokorren deialdia egin dadin.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkartearen eledun den María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 219. artikuluan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

"Ustelkeriak paralizatutako gobernu bat oztupo bat da gure herrialdearentzat". Hitz horiek Pedro Sánchez Pérez-Castejónnek 2018ko urtarrilean esandakoak dira¹. Garai hartan, Pedro Sánchezek ustelkeriaren aurkako borrokaren aitzindari gisa aurkezten zuen bere burua espainiarren aurrean, eta bere alderdia, PSOE, erakundeei eta espainiar demokraziari berari duintasuna itzultzeko gaitasuna zuen bakarria balitz bezala.

Azken hori bereziki nabarmendu zuen José Luis Ábalos jaunak 2018ko maiatzaren 31n Diputatuen Kongresuan eginiko mintzaldian, PSOEko diputatuek Mariano Rajoy Breyk gidatutako gobernuari aurkeztutako zentsura-mozioaren eztabaidan. Hain zuzen, zentsura mozio horren ondorioz iritsi zen Pedro Sánchez Gobernuako presidente izatera. "Gure demokraziaren duintasuna berreskuratzeko zentsura-mozioa da hau", esan zuen².

Bestalde, Sánchezek honakoak ere esan zituen orduan: "ustelkeriak eragile disolbatzaile eta erabat kaltegarri gisa jarduten du herrialde ororentzat", eta "ustelkeriak erakundeei fedea suntsitzen du"³.

Sei urte igaro direnean zentsura-mozio hartatik, egungo Espainiako Gobernuak, bere bazkide komunista eta separatistekin batera, gure nazioa sartu du prozesu batean, non eskutik helduta doazen batasun nazionalaren aurkako erasoak, erakundeak indarrez hartzea eta, finean, etengabeko eraso espainiarren bizimoduari eta batasun eta subiranotasun nazionalari, zeinak elkarbizitzaren oinarri baitira.

Erakundeen narriatze-espinal etengabe horrek gogoratzen diren ustelkeria-ekintza larrienetako bat egiteko testuingurua sortu du: Sánchez, bere Gobernu eta hurbilenekoak inguratzen dituen ustelkeria ekonomiko, politiko eta morala.

2017an Katalunian izandako gertakari separatistengatik zigortutako kolpistei indultua ematea, sedizio delitua desagerraraztea eta bidegabeko eralgitze delituaren araudia aldatzea eta gaur egun ikerketa judizialaren pean dauden gertakariak, zeinetan nahastuta baitaude Sánchezen hurbileneko familiartekoak, zenbait ministro, ministro-ohi eta PSOEko autonomia-erkidegoetako presidente-ohi.

Ezin da esan jada ustelkeria kasu zehatzak direnik. «PSOE kasua»ren aurrean gaude, zeinak Gobernuko presidentearen familiartekoak eta inguru hurbilena hartzen baititu; izan ere, presidenteak zuzentzen duen alderdiak ustelkeria eta narriatzea izan ditu ezaugarri gidatu dituen erakundeetan. Gaur egun, zenbait ikerketa daude irekita, eta pixkanaka ari gara ezagutzen haiei buruzko xehetasunak, espainiar guztiengan hunkipena eragiten ari direnak:

- «Begoña kasua». María Begoña Gómez Fernández Gobernuko presidentearen emazteak berak auzi bat du irekita Madrilgo Probintzia Auzitegian ustezko influentzia-trafiko eta negozioetako ustelkeriagatik, eta Pedro Sánchez bera lekuko gisa deklaratzera deitu zuten.

- «David Sánchez kasua». Aurtengo ekainean, Badajozko 3. instrukzio-epaitegiak ikertzeko egin-bideak hasi zituen Badajozko Diputazioko Arte Eszenikoen Bulegoko arduradun eta Pedro Sánchezen anaia David Sánchez Pérez-Castejón jaunaren eta diputazioko horretako presidente eta Extremadurako PSOEren idazkari orokor Miguel Ángel Gallardo jaunaren aurka, ondasun publikoak bidegabe erabiltzearen, prebarikazioko eta influentzia-trafikoko ustezko delituengatik⁴. Guardia Zibilaren Unitate Zentral Operatiboak (UCO) bi aldiz arakatu du Badajozko Diputazioa kasu horrekin lotutako informazio bila⁵.

- «Koldo kasua» edo «PSOE kasua». Lehen aipaturiko José Luis Ábalos jaunaren agintaldian, Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioko aholkulari bat bidegabeki aberastu zen pandemia betean komisio, influentzia-trafiko eta, finean, milioika euroren lapurretaren bidez, norbera babesteko ekipamenduak erosteko larrialdi-kontratuekin. Gobernuko zenbait kide maskarak erosteko eragiketak egiten hasi ziren ustez, bizi-tzak salbatzeko aitzakiaz, baina maskara horiek ez ziren inorengana iritsi, akastunak edo eskasak zirelako. Eragile asko daude nahastuta gertakari horietan, baina ez dago zalantzarik: Sánchezen Gobernuak eginkizun nagusia izan zuen ustelkeria kasu honetan.

Duela gutxi, ikerketa judizialaren testuinguruan, jakin da UCOn 211/2024 txostenari esker, Sánchezek baimena eman zuela Venezuelako narkodiktadurako Delcy Eloína Rodríguez Gómez presidenteorde exekutiboa Espainian sar zedin, Europar Batasunean sartu eta bertan mugitzeko debekua bazuen ere (ikus EBko Kontseiluaren 2017/2074 Erabakia, Venezuelako egoera dela-eta hartutako neurri murriztailei buruzkoa).

Horri guztiari gehitu behar zaizkio Enpresa estrategikoen kaudimena babesteko Funtzaren –uztailaren 3ko 25/2020 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua bidez sortu zen– laguntza finantzariorako eragiketen harira sorturiko influentzia-trafikoko eskandaluak. Horrekin lotuta, jada aipaturiko UCOn txostenean esaten da José Luis Ábalos jaunak zeregin erabakigarria izan zuela Air Europaren erreskatean.

- Estatuko fiskal nagusiaren inputazioa. Urriaren 16an, Auzitegi Gorenak Estatuko fiskal nagusi Álvaro García Ortiz jauna inputatu zuen, isilpeko informazioa jakinaraztearen delitu batengatik. Zehazki, egiten ari zen ikerketa bati buruzko informazioa filtratu zen oposizio politikoari kalte egiteko xedez. Estatuko fiskal nagusia inputatu den lehen aldia da historian, eta Sánchezen Gobernuak erabat ustelduta dagoela erakusten duen azken ebidentzia, botereari eusteko edozer egiteko beharrean baita. Sánchezek PSOEren egoitzaren luzapen bihurtu ditu erakundeak.

Azaldutako guztiak bidea ematen du egiazta-tzeko Sánchezen Gobernuak Espainiako historiako ustelena dela eta, agerikoa denez, ustelkeria gure aberriaren agente disolbatzaile eta kaltegarri izaten ari dela.

Espainiak beharrezkoa du orrialdea pasatzea. Derrigorrezkoa da espainiarrei ahotsa ematea hauteskunde orokorrak deituta. Espainiarrek aukera izan behar dute historiako gobernurik ustelena gobernatzen jarraitzea nahi duten erabakitzeko.

Horregatik guztiagatik, Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak:

1. Pedro Sánchez jaunak zuzendutako gobernu osoaren berehalako dimisioa eta hauteskunde orokorren deialdia exijitzen ditu.

2. Erabat arbuiatzen du Nazioko Gobernutik sustaturiko narriatze instituzionala, zeinak espainiarren batasuna eta berdintasuna hautsi eta gure Zuzenbide Estatua apurtzeko arriskua baitakar.

3. Babesa adierazten die jazarpen, seinalatze eta presioen gainera gobernu ustel honen delituak argitu eta pertsegitzeko lanean diharduten zerbitzari publiko guztiei.

Iruñean, 2024ko urriaren 18an

Eleduna: M^a Teresa Nosti Izquierdo

1. Sarbidea: <https://www.psoe.es/actualidad/noticias-actualidad/pedro-sanchez-un-gobierno-paralizado-por-la-corrupcion-es-un-lastre-para-nuestro-pais/>

2. Ídem.

3. Sarbidea: https://www.congreso.es/public_oficiales/L12/CONG/DS/PL/DSCD-12-PL-126.PDF#page=3

4. Sarbidea: <https://www.rtve.es/noticias/20240710/hermano-pedro-sanchez-david-sanchez-investigacion-badajoz-uco/16180759.shtml>

5. Sarbidea: <https://www.rtve.es/noticias/20240924/guardia-civil-registra-diputacion-badajoz/16260776.shtml>

11-24/MOC-00136. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita onar dezan Itoizko urtegia eta Nafarroako Ubidea eraikitzea egokia eta beharrezkoa izan zela eta ohartarazten baitio lehentasunezkoa dela Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen lizitaziorako izapideak arintzea, toki entitateen, ureztatzaile elkarten eta ukitutako eragileen eskutik

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, einaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita onar dezan Itoizko urtegia eta Nafarroako Ubidea eraikitzea egokia eta beharrezkoa izan zela eta ohartarazten baitio lehentasunezkoa dela Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen lizitaziorako izapideak arintzea, toki entitateen, ureztatzaile elkarten eta ukitutako eragileen eskutik.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako

mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita onar dezan Itoizko urtegia eta Nafarroako Ubidea eraikitzea egokia eta beharrezkoa izan zela eta Nafarroako Gobernuari ohartarazten baitzaio lehentasunezkoa dela Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen lizitaziorako izapideak arintzea, toki entitateen, ureztatzaile elkarten eta ukitutako eragileen eskutik.

Zioen azalpena

Erriberara kalitatezko ura eramateko azpiegitura beharrezkoa da Nafarroako Ubidea. Proiektu estrategikoa da Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde-orekari, aukera-berdintasunari eta garapen jasangarriari begira.

Legegintzaldi hau hasi zenetik jada urtebete igaro da; hortaz, zeharo justifikatuta dago Nafarroako Gobernuak behin betikoz ebatz dezan Nafarroako Ubidearen bigarren fasearen lizitazioa.

Ura ondasun preziatua da egunero; gauzak horrela, ubideak milaka nafarri kalitatezko ura bermatuko dio edateko, eta, horretaz gain, enpresak jartzeko eta milaka hektarearen ureztapena sendotzeko balioko du.

Horregatik, Nafarroak ezin du gehiago itxaroten jarraitu, bizi-kalitatea, enplegua eta etorkizuna bermatuko diona jasotzeko. Ubideak lurralde-

oreka, aberastasuna eta enplegua sortzen ditu, eta garapen eta antolamendu elementu bat da.

Erabaki-proposamena:

1. Itoizko urtegiaren obrak egitea bultzatu zuten gobernuen, alderdi politikoen eta erakunde sindikal eta sozialen lana aitortzen eta eskertzen dugu, azpiegitura handi horren aurka azaldu eta urtegia eraikitzea ahal izan zuten guztia eragotzi zutenen aitzinean.

2. Argi dago Itoizko urtegia eta Nafarroako Ubi-dea eraiki beharra zegoela eta horiek eraikitzean asmatu genuela; izan ere, gure foru-erkidegoa egituratzen dute ondasun urri eta ezinbesteko bat –ura, alegia– iparraldetik Erriberaraino eramatean, Erdialdean eta Estellerriaren parte handi batean barrena.

3. Nafarroako Ubidearen 2. fasearen lizitazio-rako izapideak al bait gehien azkartzera premia-tzen dugu.

4. Nafarroako Gobernua premia-tzen dugu behar adina diru esleitzen dezan Nafarroako 2025erako

Aurrekontu Orokorretan, obra hori lehenbailehen esleitzearren.

5. Udalak, ureztatzaileen erkidegoak, nekazaritzako organizazioak eta abar bultzatzen ditugu modu aktiboan parte har dezaten eta euren esku dagoena azkartu dezaten ura lehenbailehen hel-tzeko Erriberara.

6. Nafarroaren eta Estatuaren arteko akordioa-ren 4. aldaketa al bait lasterren egin dadila, aldake-ta hori behar-beharrezkoa baita obrak lizitatzeko.

7. Nafarroako Gobernua premia-tzen dugu egin beharreko lurzati-berrantolamenduen proiektuak has ditzan, hodi nagusien obrak lizitatzen diren une beretik.

8. Nafarroako Gobernua premia-tzen dugu uki-tutako toki-entitateen, ureztatzaileen elkarten eta bestelako eragileen planteamenduak eta beharri-zanak aditu eta aintzat har ditzan, Nafarroako Ubi-deak berekin dakarren aberastasunaren banaketa ekitatiboa egiteko.

Iruñean, 2024ko urriaren 21ean

Eleduna: José Javier Esparza Abaurrea

11-24/MOC-00138. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita berehala heda dezan Europar Batasuneko Zerbitzu Digitalei buruzko Erregelamendua

KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita berehala heda dezan Europar Batasuneko Zerbitzu Digita-lei buruzko Erregelamendua.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamenta-riari atxikitako Kevin Lucero Domingues jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gazteriaren osasun mentalaren babesa sendotzeari buruzko mozio hau aurkeztu du, 2024ko urriaren 31ko Osoko Bilkuran eztabaida-tzeko:

Mozioaren jarraipena Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Batzordeak egingen du.

Zioen azalpena

Osasunaren Mundu Erakundeak honela defini-tzen du osasun mentala: pertsonen bizitzako uneei aurre egitea, trebetasunak garatzea edo erkide-goia hobetzen laguntzea ahalbidetzen dien ongi-zate-egoera. Osasun mentalik gabe ez dago osa-sunik. Azken finean, osasun mentala, zenbait entitateen arabera, nahasmendu mentalik ez iza-

tea baino zerbait gehiago da; izan ere, pertsona bakoitzak bere modura bizi duen prozesu konplexu batean gertatzen dira horren arazoak.

Adin, genero, maila sozioekonomiko eta planetako toki orotako pertsonak izan ditzakete nahasmendu mentalak; dena den, nahasmendu mentalak dauzkaten pertsonen % 80 baino gehiago diru-sarrera txiki eta ertaineko herrialdeetan bizi dira. Esan beharra dago haurtzarora eta nerabezarora zaurgarritasun handiko adinak direla, baina aukera bat ere badira osasun mentalaren sustapenari dagokionez.

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak esana dauka 15etik 24 urtera bitarteko gazteak direla osasun mentaleko arazo gehien dauzkan taldea, eta pandemiak geroztik ondoez emozionala nabarmen handitu dela horien artean.

Beste azterlan batzuek ohartarazten dutenez, sare sozialek arriskua dakarte autoestimuarri eta ongizateari dagokionez. Plataforma digitaletan argitaratutako edukiak eragina dauka gizarteak bere buruari buruz daukan irudian, eta, gainera, gailuak erabiltzen ematen den denborak eta maiztasunak baldintzatu egiten du sareek osasun mentalean duten eragina. Ukaezina da espazio-mota horiek aldatu egin dutela gazteriak elkarri eragiteko, lan egiteko, ikasteko eta informazioa lortzeko duen modua.

Sare sozialek ez dute errealitatea erakusten, eta eragin handia dute auto-pertzepzioan, halako moduan non kalte larriak eragiten baitizkiete "bizimodu perfektua" edo lortu ezin diren estereotipoak bilatzen dituzten gazteei.

Nahiz eta Osasunaren Mundu Erakundeak oraindik ez duen nahasmendutzat hartzen internetekiko, mugikorrarekiko edo sare sozialekiko adikzioa, datuek erakusten dute gailu elektronikoen erabilera okerrak kalte egiten diola gazteen ongizateari eta, bereziki, osasun mentalari. Osasun Ministerioaren datuen arabera, 2022an, 15etik 24 urtera bitarteko biztanleek uste zuten interneten erabilera problematikoa egiten zutela, talde hori izaki ukituena.

Sare sozialen erabilera okerra autoestimu-maila txikiagoa eta osasun mentaleko arazo gehiago izatearekin lotu ohi da, esate baterako depresioa edo antsietatea; izan ere, gazteen % 26k esaten du denbora nahiko edo asko pasatzen duela bakarri gailu elektronikoak erabiltzen dituenetik, eta % 9,4k, berriz, bere lagunekin pasatzen duen denbora murriztu duela. Kezkagarriena da nerabeen eta

gazteen % 50ek sentitzen zuela goibel zegoela 2020ko pandemiak geroztik.

Nahiz eta ez den frogatu kausazko harreman bat dagoenik sare sozialak osasun mentala kalteztzen dutela baieztatzeko, zenbait erreforma egin beharra dago, gazteek interneten ematen duten ordu-kopurua igo dela-eta.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztzen du:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

- Berehala ezar dezan Europar Batasunaren Zerbitzu Digitalen Erregelamendua (DSA).

- Plataformek gazteen arreta erakartzeko erabiltzen dituzten teknikak detekta eta eragotz ditzan, haien zaurgarritasunaz baliatuta haien datuak monetizatzeke erabiltzen dituztenak alegia, Zerbitzu Digitalen Erregelamendua betez.

- Administrazio publikoen jardunbide egokiak susta ditzan: jakinarazpenak desaktibatzea, mugikorraren blokeo automatikoa, gomendio kronologikoen sistemak edo pantaila grisen eskalan paratzea kontsumo-denbora murrizteko.

- Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren estatutuak alda ditzan, Espainian zerbitzu digitalak koordinatzeko organismoa den aldetik, kontrol eta ikuskapen arloko eskumenak eduki ditzan, Zerbitzu Digitalen Erregelamendua (DSA) exijitzen duen moduan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Familiendako formakuntza eta alfabetatze digitaleko jarduketak taxutu ditzan eta, ondoren, ezarri eta ebaluatu, neska-mutikoen, nerabeen eta gazteen parte hartzearekin, horiek ere inplikaturata baitaude helduen formakuntzan.

- Helduendako eta familiendako formakuntza eta alfabetatze digitaleko programak abiaraz ditzan, neska-mutikoek, nerabeek eta gazteek sare sozialen erabileraren kudeaketaren onurei eta arriskuei buruzko gaitasunak handitzearren.

- Mugikorraren erabilera arduratsua eta gainbegiraturtua bultzatzea, guraso-kontrolleko tresnak indartuta, adingabeen babesa bermatzeko eta eduki desegokietarako sarbidea mugatzeko.

Iruñean, 2024ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

11-24/MOC-00140. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita kulturaren arloko lanbideei buruzko lege proiektu bat idatz dezan

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kulturaren arloko lanbideei buruzko lege proiektu bat idatz dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatua izan dadin:

Zioen azalpena

2020ko maiatzaren 21ean, Nafarroako Alderdi Sozialistaren, Geroa Bairen, Podemos Ahal Dugu Nafarroaren eta Ezkerreko Ezkerraren talde parlamentarioek eztabaidarako mozio bat aurkeztu zuten Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran, kulturaren sektorearentzako laguntza-neurriei buruzkoa, COVID-19aren pandemia sektore horretan izaten ari zen inpaktua zela-eta kezkatu.

Horrez gain aitortzen zen ezen urgentziazkoena neurriak zirela, baina garrantzizkoa zela, orobat, kulturako balio-kateko profesionalak beharrezkoa zutela "beren tipologia, kualifikazioa, gaitasunak eta bitartekoak aintzatets dakizkien, bai eta jardunbide egokiak eta kode deontologikok sor daitezkeen ere, behar bezalako garapena lortze aldera"; izan ere, beste sektore batzuetan gertatzen den bezala, kulturako lanbideek eta horietan diharduten pertsonen maila orotan behar zuten, eta oraindik ere behar dute, sektorearen prekarizatzea eragotziko duen profesionalizazio eta prestakuntza bat; eta hala aitortzen du baita Nafarroako Eskubide Kulturalari buruzko urtarillaren 15eko 1/2019 Foru Legeak ere. Horregatik, mozio hartan, zeina talde parlamentario guztien aho batezko sostenguarekin onetsi baitzen, kulturako lanbideen lege-proiektu bat egitea proposatzen zen.

Gero batean, Kultura eta Kirol Departamentuak jakinarazi zuen ezen lege-proiektu hori idatzi haurretik beharrezkoa zela kulturako lanbideei buruzko diagnostiko bat. Diagnostiko hori Ikerpartners enpresak egin eta 2022ko martxoaren 29ko Kultura Batzordean aurkeztu zuen Esnaola kontseilariak.

Erabaki-proposamena:

Bakarra. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du idatz dezan, beharrezkoa den parte-hartze prozesuaren ondoren eta 2025eko abenduaren 31 baino lehen, kulturako lanbideei buruzko lege-proiektu bat.

Iruñean, 2024ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledunak Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko azaroaren 21eko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/ELC-00002. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko urriaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledunak Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea luzatzea eskatu du.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronaturako kide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2024ko azaroaren 21eko 17:30era arte luzatzea.**

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2024ko urriaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias